

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILA

Aldi baterako ordezkapenak egiteko eta Arabako Lautadako Kuadrillako arkitektoaren lanpostuaren unean uneko beharrak asetzeko lan-poltsa bat sortzea

Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakariak, 2025eko maiatzaren 27ko ebazpenaren bidez, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa.– Arabako Lautadako Kuadrillako arkitektoaren lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozedurarako deia egitea, eta arkitektoaren lanposturako lan-poltsa eratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek eranskin gisa agertzen dira.

Bigarrena.– Erabaki hau eta oinarri horiek ALHAOn, iragarki-oholean eta Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitza elektronikoan argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten eta interesdunek eskabideak ezarritako epean aurkeztu ahal izan ditzaten, ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Kuadrillako lehenengo batzarrari ebazpen honen berri ematea.

Agurainen, 2025eko maiatzaren 27an

Presidente

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE

ERANSKINA

ARKITEKTOAREN LAN-POLTSA SORTZEKO PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea lan-poltsa bat sortzea da, arkitekto lanak egiteko. Lan-poltsa horrekin, LPZn dauden lanpostu hutsak, laneko bajak, erretiroak, eszedentziak, baimenak, oporrak eta abar direla eta sortzen diren kontratazio-beharrak beteko dira, gaur egun langile propioek beteko dituztenak, bai eta zereginak pilatzeagatik edo sor daitekeen beste edozein gorabeherengatik behar diren errefortzuak ere.

Udal-arkitekto bati dagozkion eginkizunak bete beharko ditu, besteak beste, honako hauek:

— Obra handietarako lizentziak: Etxebizitza, pabiloi, urbanizazio, azpiegitura, igogailu, atarien eraberritze eta abarren proiektuak berrikustea, hirigintzako araudira egokitzen dela egiaztatzea eta lizentzia izapidetzeko txostena egitea.

— Eraikinen ikuskapen teknikoak: udaletan aurkeztutako ikuskapen teknikoak eta zuzenketak jasotzea, berrikustea eta EuskoRegite plataforman argitaratzea.

— Lurralde eta hirigintza-plangintzako tresnak: hirigintza-jarduketako programak, plan partzialak, ituntze-proiektuak, xehetasun-azterketak eta urbanizazio-proiektuak onartzeko txostenak; hiri-antolamenduko plan orokorrak eta arauen aldaketa puntualak berrikusten laguntzea; iradokizunen eta alegazioen txostenak lurralde-plangintzako tresnak izapidetzean (Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak); instalazio fotovoltaiakoen Plan Bereziei buruzko txostenak.

— Obrak ikuskatzea: obren eta espedienteen jarraipena egitea, lizentziarekin bat datozela egiaztatzeko. Obrak lizentziarik gabe ikuskatzea: Ikuskatzea, dokumentatzea eta txostena egitea.

— Eraikinen eta orubeen ikuskapena: eraikinen egoera berrikustea eta, hala badagokio, aurre-espedienteetarako eta egikaritze-aginduetarako txostenak egitea.

— Lehen okupazioko lizentziak: eraikinen eta urbanizazioen azken ikuskapena eta 1. okupazioko lizentzia emateko txostena egitea.

— Jarduera sailkatuen proiektuak: Proiektuaren berrikuspenean eta kokalekuaren eta lurzoru kutsatuen txostena; Neurri zuzentzaileen informazioa alde aurreko komunikazioa behar duten jarduera batzuetan; Neurri zuzentzaileak hartu direla egiaztatzea edo jarduera ikuskatzea, eta irekitzeko lizentziaren txostena, hala badagokio.

— Balorazioak: Lursail, obra eta eraikinen balorazioak egitea; Hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan komunitateak duen partaidetzari dagokion Udalari lagapena dirutan emateko balorazio-txostenak egitea; Zuzkidura-jarduketetan dirua sartzeko balorazio-txostenak egitea, hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik finkatu gabeko hiri-lurzoruan zuzkidura-karga altxatzeko.

— Memoriak eta aurrekontuak: Dirulaguntzak izapidetzeko memoria teknikoak, aurrekontuak eta planoak egitea.

— Udal obrak: Eraikinak urbanizatzeko eta eraberritzeko obretarako memoriak, neurketak, aurrekontua eta/edo planoak egitea.

— Hirigintza-informazioa: Hirigintza-zedulen edo hirigintza-informazioaren eskaerei buruzko txostenak egitea, eraikuntzarako eta eraikinetan esku hartzeko aukerak (eraberritzea edo birgaitzea)...

— Desjabetzeak: Desjabetze-proiektuak idaztea. Desjabetze-prozeduretan alegazioei erantzuteko txostenak egitea.

Lan-poltsa sortzeak ez du esan nahi nahitaez bitarteko izendapena/kontratazioa egingo denik, ezta hautaketa-prozedura honetatik erator daitekeen izendapena/kontratazioa ere, eta horrek ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izaera aitortzea.

Nolanahi ere, bitarteko funtzionarioak izendatu zirenetik hiru urte igaro ondoren, bitarteko lan-harremana amaituko da (10.4 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak

Merezimendu-lehiaketa deitzen da ezaugarri hauek dituen lan-poltsa bat sortzeko:

- Lanpostuaren izena eta mota: arkitektoa.

- Hizkuntza-eskakizuna: 3 nahitaezkoa.

Hirugarrena. Izangaiei baldintzak

a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

b) Espainiako nazionalitatea izatea.

c) Titulazioa: arkitekturako graduko unibertsitate-titulua edo baliokidea lortzeko eskubideak izatea edo ordainduta izatea. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek dagokien homologazio-kredentziala eduki beharko dute, edo, hala badagokio, baliokidetasun-ziurtagiria, bai eta hizkuntza-eskakizuna ere.

d) Bete beharreko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta eginkizun horiek betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Diziiplina-espediente bidez edozein herri-administrazioen zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko edo lan-kontraktuko langileen kasuan betetzen zituzten antzeko eginkizunak betetzeko erabateko desgaitasuna edo desgaitasuna berezia ez izatea. Desgaituak ez izatea edo antzeko egoerarik ez izatea, eta beste es-tatu batean enplegu publikora iristea eragozten duen diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea.

g) 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke, honako hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofi-zialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeke salbuestekoa.

Izangaiari bakarrik dagokio egiaztatzea, eta ez da aurreikusten hizkuntza-eskakizuna egia-ztatzeke probarik egitea.

h) B motako gidabaimena izatea.

Izangaiek aurreko baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteke epea amaitzen denean, eta proposatutako hautagaiak baldintza horiei eutsi beharko die izendapenaren/kon-tratazioaren unean.

Laugarrena. Eskabideak

Eskabideak oinarri hauen eranskinean adierazitako ereduari lotuko zaizkio, eta Arabako Lau-tadako Kuadrillako presidenteari zuzenduko zaizkio (Langarikako Bidea plaza 4, behea, Agurain, Araba), bost egun balioduneko epean, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arabako Lautadako Kuadrilako Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira astelehenetik ostiralera, 9: 00etatik 14:00etara, jendearentzako arreta-egunak eta orduak. Kuadrilaren egoitza elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira: <https://www.arabakolautada.eus/fichas/17/211/Sede-Electronica>.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskabidearekin batera, ezinbestekoa izango da sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agirien kopia aurkeztea (NAN, graduako titulua edo baliokidea eta hizkuntza-eskakizuna, gidabaimena), bai eta alegatutako merezimenduen kopia ere.

Eskabidearekin batera aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteke epea amaitu ondoren, behin-behinean onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onartutzat jotzeko ebazpena emango du presidenteak. Ebazpen hori erakun-dearen iragarki-taulan eta Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, eta baztertzeko arrazoia adieraziko da. Baztertutako hautagairik ez badago edo, egon arren, zerrenda jendaurrean jarri eta bost egun balioduneko epean alegaziorik aurkeztu ez badute, automatikoki behin betiko bihurtuko da.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, edo behin-behineko zerrenda behin betikotzat jotzen duenean, epaimahaiburuak erabakiko du epaimahai kalifikatzailearen osaera.

Seigarrena. Hautaketa-prozesuaren deskribapena

Hautaketa-prozesua lehiaketa bat izango da, eta honako merezimendu hauek baloratuko dira:

A) Esperientzia. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu.

Herri-administrazioetat hartzen diren erakunde eta organismoetan izandako lanbide-esperientzia baloratuko da, gehienez ere hiru (3) puntu: 0,125 puntu, edozein herri-administrazioan A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan egindako zerbitzu-hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horiek betetzeko arkitekto-titulua edo baliokidea izatea beharrezkoa bada, edozein harreman juridikotan, zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken bidez emandako zerbitzuak izan ezik.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat hartzen dira abenduaren 26ko 70/1978 Legean jasotakoak, Administrazio Publikoan aurretiazko zerbitzuak aitortzea dakartenak, eta ez dira sartzen izaera publikoko merkataritza-sozietateak eta fundazioak.

Izendapenarekin edo aldi baterako kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko lanaldi partzialean, kontratatutako lanaldiaren iraupena hartuko da kontuan, lanaldi osoari dagokionez. Kasu horretan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarriari dagokion murrizketa proportzionala egingo zaio.

Zenbatzeko, lan egindako aldien batura egingo da, eta, batu ondoren, hilabete baino gutxiagoko zatikiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, hilabetetzat 30 egun natural hartuko dira.

Esperientzia profesionala egiaztatzeko, aldeztu aurreko zerbitzuak eman ziren administrazioaren zerbitzu-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

B) Ikastaroak eta masterrak. Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

Ikastetxe ofizialek eta administrazio publikoek deitutako lanpostuarekin zuzenean lotutako prestakuntza-ikastaro bakoitzeko (hirigintzaren arloko ikastaro espezifikoak: plangintza, diziplina, kudeaketa, etab.):

- 749 ordutik gorako ikastaro edo unibertsitate-titulu propio bakoitzeko: 0,6 puntu.
- Unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko, 500-749 ordu: 0,4 puntu.
- Unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko, 100 eta 499 ordu artean: 0,2 puntu.
- Unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko, 25 eta 99 ordu bitartean: 0,1 puntu.

Ikastaroen iraupena ECTS kredituetan bakarrik adierazten denean, kreditu bakoitza 25 ordu gisa zenbatuko da. Iraupena ECTS ez diren kredituetan bakarrik adierazten denean, kreditu bakoitza 10 ordu gisa zenbatuko da.

Masterrak eta prestakuntza-ikastaroak egiaztatzeko, dagokion ziurtagiria edo tituluaren kopia aurkeztu beharko da, programarekin batera.

Ez dira baloratuko iraupen-orduak, kredituak edo programaren berri ematen ez duten prestakuntza-ikastaroak. Karrera, gradu edo master ofizialetan parte hartzen dutenak ere ezin izango dira baloratu.

Nolanahi ere, egiaztagiriek eskabideak aurkezteko epea baino lehenagoko data izan beharko dute.

Kalifikazio-epaimahaiak merezimenduen behin-behineko balorazioa jasotzen duen zerrenda onartu eta argitaratuko du Kuadrillako iragarki-oholetan eta egoitza elektronikoa, puntuazioaren arabera ordenatuta.

Merezimenduen balorazioan puntuazio bera lortuz gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

- Administrazio Publikoan egindako zerbitzuengatik balorazio handiena jaso duen izangaiaren alde.

- Prestakuntza osagarritzat balorazio handiena izan duen izangaia.
- Berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

Izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Epe hori amaituta, epaimahaia hautaketa-prozesuaren behin betiko balorazioaren zerrenda argitaratuko du.

Zazpigarrena. Zerrendaren kudeaketa

Behin betiko balorazio-zerrendaren arabera gutxienez 1,5 puntu lortu dituzten hautagaiek osatuko dute lan-poltsa.

Presidentetzaren ebazpen bidez lan-poltsa onartu ondoren, Lautadako Kuadrillak kudeatuko du, bertan ezarritako ordenaren arabera.

Poltsa indarrean dagoen bitartean lanpostua betetzeko beharra gertatzen denean, lan-poltsan sartutako pertsonaiek eskainiko die lanpostua presidentetzak, lan-poltsan duten hurrenkera errespetatuz, eta hiru egun balioduneko epe komuna emango die eskaintza onartu edo baztertzeko. Epe horiek postuaren eskaintza jasotzen duen posta elektronikoa bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Zortzigarrena. Agiriak aurkeztea

Onartu dutenen artean eta izendapena egin dadin, lan-poltsan puntuaziorik onena duen hautagaiari dei egingo zaio, eta hark hiru egun balioduneko epea izango du dokumentuak izendatzeko proposamena toki-erakundeak helarazten duenetik hiru egun balioduneko epean, eskatutako gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu, bai eta hautaketarako alegatu ziren merezimenduak ere, eta, gainera, ezgaitasun edo bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez egotearen zinpeko aitorpena, inolako administrazio publikoren zerbitzutik diziplina-espedientearen bidez banandu ez izanaren zinpeko aitorpena, eta eginkizuna normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaia ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatzen, ondoriorik gabe geratuko dira bere jardun guztiak, eskabidean faltsukeria egiteagatik izan lezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe. Kasu horretan, presidentetzak hurrengo izangaia aldeko izendapen-proposamena egingo du, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

Lan-poltsatik kanpo geratzeko arrazoiak hauek izango dira: izangaia lan-poltsan parte hartzeari uko egitea, zortzigarren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea, lanpostuaz ez jabetzea eta eskainitako lanpostua betetzeari uko egitea, salbu eta, azken kasu horretan, arlo publikoan edo pribatuan lanpostu bat betetzen ari dela egiaztatzen bada edo mediku-agiri ofizialen bidez egiaztatutako gaixotasuna badago.

Bederatzigarrena. Lan-poltsaren indarraldia

Lan-poltsak 5 urteko indarraldia izango du, onartzen denetik zenbatzen hasita.

Hamargarrena. Epaimahaia eta oinarrien interpretazioa

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: presidenteak, bokalak eta bokal-idazkariak (hitza eta botoa izango dute guztiek) eta horien ordezkoeak, A taldeko karrerako funtzionarioak izanik.

Epaimahaiaren izendapena toki-erakundeko presidentearen ebazpen bidez onartuko da, eta izangaien zerrenda argitaratzearekin batera argitaratuko da.

Hautagaiek epaimahaiko kideak errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa behar bezala egiteko behar diren erabakiak hartzeko; oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, gaiari buruz indarrean dagoen legeria aplikatuko da.

Deialdia, haren oinarriak eta oinarrietatik eta epaimahai kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 14. eta 46. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Hamaikagarrena. Datuen babesa

Izangaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenetara egokituko da.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen berariaz onartzen dute, kontrako adierazpenik ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helburuarekin tratatzea.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin (EB/679-RGPD Erregelamendua) eta garapen-araudiarekin bat etorriz, Arabako Lautadako Kuadrillak, tratamenduaren arduraduna den aldetik, jakinarazten dizu zure datu pertsonalak beste administrazio publiko batzuei laga ahal izango zaizkiela, hautaketa-prozesuak kudeatzeko tratatuak izan daitezzen. Nolanahi ere, zure baimena ez emateko edo edozein unetan baliogabetzeko eskubidea duzu.

ERANSKINA: Interesdunaren eskaera

Interesdunaren datu pertsonalak eta jakinarazpenetarako helbidea (nahitaezkoa):

Izen-abizenak:.....

IFZ:.....

Helbidea:.....

Posta-kodea:.....

Udalerria:.....

Probintzia:.....

Gaitutako helbide elektronikoa:.....

Telefono finkoa edo mugikorra (nahitaezkoa):.....

Posta elektronikoa (nahitaezkoa):.....

Adierazten dut

Arabako Lautadako Kuadrillarako arkitektoaren lan-poltsa bat sortzeko lehiaketaren deialdiari dagokionez, (e) ko zk.ko ALHAOn iragarritako deialdia ikusi dut.

Hau adierazten dut nere erantzukizunpean:

- Espainiako nazionalitatea izatea, hargatik eragotzi gabe urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoa.

- Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- Diziplina-espediente bidez edozein herri-administrazioen zerbitzutik edo autonomia-erki-degoetako konstituzio- edo estatutu-organoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko edo lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten eginkizunen antzeko eginkizunak betetzeko erabateko desgaitasun edo desgaitasun berezia ez izatea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegatu publikoarengana iristea eragozten duenik.
- Eskatutako titulazio akademikoa eta hizkuntza-eskakizuna izatea.
- Eskatutako gidabaimena izatea.

(ADIERAZI X BATEZ DAGOKIONA) Era berean, jakinaren gainean nago eta

Arabako Lautadako Kuadrillari berariazko baimena

☐ ematen diot

☐ ez diot ematen

datu-pertsonalak, lan-poltsa sortzea eragin zuen hautaketa-prozesuaren administrazio-espedientearen agertzen direnak, beste administrazio publiko batzuei lagatzeko edo jakinarazteko, hautaketa-prozesuak kudeatzeko tratatuak izan daitezten.

Horregatik guztiagatik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

ESKATZEN DUT onartua izatea erakunde horretako arkitektoaren lan-poltsa bat sortzeko hautaketa-prozesuan.

Nire erantzukizunpean aitortzen dut emandako datuak egiazkoak direla.

..... (e)n, 20 (e)ko aren (e)(a)n.

Eskatzailea.

Oharra: Eskabide honekin batera, eskatzen diren baldintzak eta alegatzen diren merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia aurkeztu beharko da, aurkeztzen diren agirien aurkibidearekin batera. (Eskabidearekin batera aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira).

Eskaera Arabako Lautadako Kuadrillako Presidenteari zuzenduko zaio, oinarrietan adierazitako posta-helbidera edo egoitza elektronikora.